



149. OSOKO BILKURAKO AKTA

Zumaiako herrian, 2020ko urriaren 13an, arratsaldeko seietan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da Ezohiko bilkura egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuzen deitu direlarik, Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

Lehendakaria:

Iñaki Ostolaza Esnal, jna.

Bertaratutako zinegotziak:

Alex Oliden Antia, jna.
M. Arritokieta Iribar Egaña, and.
Maidier Alberdi Yeregui, and.
Maddi Aldalur Osa, and.
Asier Arakistain Alberdi, jna.
Marina Bidasoro Arocena, and.
Jose María Azkue Castillo, jna.
M. Aranzazu Gajate Telleria, and.
Oier Korta Esnal, jna.
M. Cruz Alvarez Aparicio and.
Gotzon Embil Unanue, jna.
Cristina Vicente Iciar, and.
Miren Aitziber Odriozola Etxezarreta, and.
Iker Mardaras Arrieta, jna.
Ainhoa Illarramendi Azkue, and.
Arritokieta Marañón Basarte, and

Ez bertaratuak:

Idazkaria:

Gorka Urgoiti Agirre



**1.- AURREKO BILERETAKO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKO BADA:
(148. zbkia – 2020.09.24)**

148. akta onartutzat ematen da

2.- OGASUNA.

2.1.- IRIZPENAK:

2.1.1.- 2021. EKITALDIRAKO ORDENANTZA FISKALAK ONARTZEA, BIDEZKO BADA.

2020KO URRIAREN 6KO OGASUN BATZORDEAREN IRIZPENA, 2021. URTERAKO ORDENANTZA FISKALAK ONARTZEKO.

AURREKARIAK

2020ko irailaren 15eko Ogasun Batzordean 2021. urterako ordenantza fiskalen egutegia aurkeztu zen.

2020ko irailaren 22ko Ogasun Batzordean 2021.urterako ordenantza fiskalen V1 dokumentua aurkeztu, eta eztabaidatu zen.

2020ko irailaren 29ko Ogasun Batzordean 2021.urterako ordenantza fiskalen V2 dokumentua aurkeztu, eta eztabaidatu zen.

2020ko urriaren 6ko Ogasun Batzordean 2021. urterako ordenantzaren behin betiko proposamena aurkezten da. Espedientea ikusten da eta gai batzuk eztabaidatzen dira. Jarraian, 2021rako ordenantza fiskalen behin betiko onespenerako irizpenaren bozketa egin da.

Irizpen honi 2021ko Ordenantza Fiskalen proposamena eransten zaio.(1.Eranskina V3).

IRIZPENA

Ondorioz, 2020ko urriaren 6an, Ogasun Batzordeak aldeko irizpena jaso du hurrengo botoekin:

Aldeko botoak: 5 (3 EH-Bildu, 2 EAJ)

Aurkako botoak:

Abstentzioa:

Honako PROPOSAMEN hau udalbatzako Osoko Bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47 artikuluan araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko da):

1.- Hasierako onarpena ematea 2021.urterako Ordenantza Fiskalen aldaketari eta uztailaren 5eko 11/1989 Gipuzkoako Hazienda Lokalen Foru Arauaren 16. artikulua araberan, udaleko iragarki taulan, Gipuzkoako Lurralde Historikoan hedapenik handienetakoa den egunkari batetan argitaratu eta GAOn argitaratu hogeita hamar egun balioduneko epean zehar.

2.- Jendaurreko erakusketako epealdia amaitu ondoren, Udal Korporazioak aurkeztu diren erreklamazioak ebatziz behin betiko erabakia hartuko du, eta



Zumaia Udala

2020IAKU0010-A20/6536

erreklamaziorik aurkezten ez bada behin behinekoa zen erabakia behin betiko hartutzat ulertuko da.

3. Behin betiko erabakiaren testu bateratua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, eta ez da indarrean jarriko argitaratzen ez den bitartean.

Zumaian, 2020ko urriaren 6an

Batzordeburua

Kontu-hartzailea

Aldeko botoak: 17 boto (9 EH BILDU, 7 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: 1.- 1.- Hasierako onarpena ematea 2021.urterako Ordenantza Fiskalen aldaketari eta uztailaren 5eko 11/1989 Gipuzkoako Hazienda Lokalen Foru Arauaren 16. artikulua araberako udaleko iragarki taulan, Gipuzkoako Lurralde Historikoan hedapenik handienetakoa den egunkari batetan argitaratu eta GAOn argitaratu hogeita hamar egun baliouduneko epean zehar.

2.- Jendaurreko erakusketako epealdia amaitu ondoren, Udal Korporazioak aurkeztu diren erreklamazioak ebatziz behin betiko erabakia hartuko du, eta erreklamaziorik aurkezten ez bada behin behinekoa zen erabakia behin betiko hartutzat ulertuko da.

3. Behin betiko erabakiaren testu bateratua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, eta ez da indarrean jarriko argitaratzen ez den bitartean.

2.1.2.- UDALAREN 19. KREDITU ALDAKETA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.-

UDALAREN 19.KREDITU ALDAKETA ONARTZEKO OGASUN BATZORDEAREN IRIZPENA

Transferentzia bidezko kreditu aldaketaren 2020-KALD-000020-00 zenbakidun espedientea onartzeko proposamena.

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, gastu partiden arteko kreditu transferentziaren modalitatekoa.

Kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 29. artikuluan ezarritakoarekin.

Gaia aztertu ondoren,



Lehenengoa.- 2020ko urriaren 6an ospatzen den ogasun batzorde honek onartzen du Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu transferentzia modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 0300.481.338.00.04 2020	SAN PEDRO DIRU-LAGUNTZAK	3.500,00	3.500,00	0,00
1 0300.481.338.00.05 2020	UDAKO DIRU-LAGUNTZAK	2.500,00	874,00	1.626,00
1 0300.481.338.00.06 2020	AUZOAK DIRU-LAGUNTZAK	21.000,00	21.000,00	0,00
1 1200.226.231.60.99 2020	ANITZEN SAREA	5.000,00	3.427,00	1.573,00
1 0200.226.326.10.99 2020	HAINBAT GASTU LUDOTEKA	8.500,00	4.000,00	4.500,00
1 0100.227.326.20.01 2020	UDALEKU IREKIAK - GARBIKETA	1.700,00	1.700,00	0,00
1 0200.226.326.20.98 2020	HAINBAT GASTU UDALEKU IREKIAK	10.000,00	9.500,00	500,00
1 0800.160.326.20.01 2020	GIZARTE SEGURANTZA UDALEKU IREKIAK	25.819,49	24.499,00	1.320,49
GUZTIRA		78.019,49	68.500,00	9.519,49

Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 0100.221.165.00.01 2020	HORNIDURAK:KALEKO ARGIA	108.000,00	10.000,00	118.000,00
1 0500.226.231.00.97 2020	COVID-19 EROSKETA ZERBITZUA	30.000,00	10.000,00	40.000,00
1 0200.481.326.00.01 2020	OINARRI HERRI HEZITZAILEAK (URTEKO KUOTA)	0,00	4.000,00	4.000,00
1 0500.227.231.10.99 2020	ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA	240.000,00	15.500,00	255.500,00
1 0100.622.231.41.01 2020	INBER. APARTAMENTU TUTEL. (ULO)	12.000,00	12.000,00	24.000,00
1 0100.601.454.00.01 2020	HOBETZE OBRAK AUZO BIDEETAN	35.000,00	10.000,00	45.000,00
1 0100.227.334.01.98 2020	GARBIKETA MUSIKA ESKOLA OIKIA	0,00	2.000,00	2.000,00
1 0100.643.151.00.01 2020	HIRIGINTZAKO AZTERLANAK	201.000,00	5.000,00	206.000,00
GUZTIRA		626.000,00	68.500,00	694.500,00



Bigarrena.- Gaia aztertu ondoren, bozketa egiten da:

Aldeko botoak: 5 (3 EH-Bildu, 2 EAJ)

Aurkako botoak:

Abstentzioa:

Proposamen hau Osoko Bilkurara eramatea onartzen da.

Batzordeburua

Kontu-hartzailea

Aldeko botoak: 17 boto (9 EH BILDU, 7 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: 1.- Udalaren 19. Kreditu aldaketa onartzen da.-

3.- HIRIGINTZA.-

3.1.- IRIZPENA:

3.1.1.- JADARRE AUZOA, 9ko FATXADA BIRGAITZEKO OBRA LIZENTZIAREN ICIO ATALEKO %95EKO HOBARIA EMATEA, BIDEZKO BADA.

LURRALDE ANTOLAMENDUAREN BATZORDEAREN IRIZPENA, 2020KO URRIAREN 5EKOA, ZUMAIKO ONDARE HISTORIKOKO, ARKITEKTONIKOKO ETA INGURUMEN-ONDAREKO FATXADAREN BIRGAITZE INTEGRALEKO ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGAREN GAINEKO %95EKO HOBRA APLIKATZEKO DENA, ZUMAIKO JADARRE AUZOKO 9 ZENBAKIKO FATXADARI DAGOKIONEZ.

AURREKARIAK

1.- 2018ko irailaren 17an, obra-lizentzia eman zen Zumaia Jadarre auzoko 9 zenbakian fatxada konpontzeko.

2.- Zumaia Jadarre auzoko 9 zenbakiko jabekideek aurkeztutako idazki baten bidez, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren gaineko %95eko hobaria aplikatzeko eskatu zen, Jadarre auzoko 9 zenbakiko fatxada konpondu zelako.

3.- Udal zerbitzu teknikoaren txosten teknikoaren hobaria aplikatzearen aldekoa da, 19.650,00 euroko egikaritze materialaren aurrekontuan oinarrituta.

4.- Ordenantza fiskalen berri eman da, dagokion IRIZPENA emateko.

IRIZPENA



Ondorioz, 2010eko azaroaren 22ko, Lurralde Antolamenduaren batzordean bozketa egin da, honako emaitzekin:

Alde: Iñaki Ostolaza Esnal (Bildu)
Alex Oliden Antia (Bildu)
Marina Bidasoro (Bildu)
Oier Korta Esnal (EAJ)
Aitziber Odriozola (EAJ)
Aurka: 0
Abstentzioa: 0

ALDEKO irizpena eman da eta honako PROPOSAMEN hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47 artikuluan araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko da):

1.- Zumaia Jadarre auzoko 9. zenbakian fatxada birgaitzeko obrari eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergan %95eko hobaria aplikatzea onartzea, exekuzio materialaren aurrekontua (19.650,00 €) kontuan hartuta.

Zumaia, 2020ko urriaren 5a.
Lurralde Antolamenduaren batzordeko batzordeburua
Iñaki Ostolaza Esnal,

Aldeko botoak: 17 boto (9 EH BILDU, 7 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: 1.- Jadarre auzoa, 9ko fatxada birgaitzeko obrari eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergan %95eko hobaria ematea onartzen da.

Eta ezohiko bilkura denez, ez dago galdera-erantzunik, beraz, bukatutzat ematen dut gaurko ezohiko plenoa,

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, arratsaldeko seiak eta hogeita minutu direnean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Idazkaria



Zumaiako Udala

2020IAKU0010-A20/6536